

EZAGUTZEN EZ DEN MAGALA

Ezagutzen ez den magaletik
igo daiteke portua,
aldapa baina izan daiteke
norbere baitan sortua.
Nahiz badakidan eskubide hau
dela kostata lortua,
ez da izan nik aukeratua
sabel barruko mortua
ta kokaleku berri batetik
ikusi det abortua.

Bederatzi aste ta azeituna
baten tamaina zuenak
nola eragin ditzake halako
hutsuneak ta dilemak?
Sentitzeko ere bilatu ditut
arrazoiaren baimenak...
Sentiarazi ta pentsarazi dit
bizitako honek denak
gure gorputzen minak ez ote
diren jendartearenak.

Proiektu eder bat ta izena ere
bazituela demagun,
galera horren kudeaketara
hormonak batu ditzagun...
Bai, tristuraren zama arindu
nahi nuke egunez egun
ta asmo onez esanagatik
ez errepikatu, lagun:
"Ohikoa da, lasai, berriro
geratuko zera haurdun"!

Ginekologo batek esanak
sortu dit nahiko etsipen:
"jende askori gertatu arren
hontaz ez da hitz egiten".
Gordetzen dugu min eragiten
digun hamaika bizipen
ta intziri bat ahots isilen
tokia hartzera da irten,
kontaktzen ez den hori bihurtzen
baita soilik irudipen.

Logureak ta pixagureak
joan zaizkit berehala,
titiak hustu zaizkit galera
sinetsi dudan ahala,
bere onera itzultzen hasi
da sabeleko azala
baina onartu behar gorputzak
"bera" erauzi dezala...
Beraz nolatan jokatu ezer
pasa ez balitz bezala!

Dolua biziz pasatzen dela
badet nahiko itxaropen
baina tabua hausteko ezin
nuen egon itxaroten.
Gure doluez hitz egitea
litzateke nahiko lorpen...
Prozesu honen ondorenean
ze zoriontsu nengokeen
herritar gisa ikasiz gero
laguntzen eta egoten.

Doinua: Ekaitza / Uztailaren hemeretzia

Izarne Zelaia Arratibel, 2020-ko martxoan